

Teresa Sala Hernani

“DROGEN AURREAN, zu zeu izan!”; hau da egunotan Hernaniko gazteei heldu arazi nahi zaien lema. Baita herriko Gazte Txokoak drogamenpekoasunen prebentzioarako zerbitzuarekin eta Askagintza kolektiboarekin elkarlanean urtarrilerako antolatuturiko ekintzen programaren izenburua.

Lehenago astean aurkeztu zituzten antolatzaileek ekimen honen nondik norakoak. Hala, pozik azaldu ziren guztiak ekimenean erakunde publikoak eta kolektibo independenteak parte hartu nahi izan dutelako. Askagintzako ordezkariak aurkezpenean azaldukoari eutsiz, «gazteek geroz eta droga gehiago kontsumitzen dituzte, goizago hasten dira kontsumitzen eta euren denbora librean egiten dutenez, Gazte Txokoa lirtzen zaigu sustantzi hauen inguruko informazioa eskaintzeko gunerik egokiena».

Drogen inguruko kezka hezitzaile eta guraso gehienetan ahotan dago, gaztetxoak ordea jakininez gainezka daude. Hala, Hernanin egunotan martxan dagoen ekimenak gazteei drogen inguruko erantzukizuna, informazioa eskaintzea eta sentsibilizazioa sortzea ditu xede nagusi. Izan ere, eta aurkezpenean antolatzaileek azaldukoaren arabera, «drogen kontsumoa errealtate sahistezina da gaur egun eta gazteei kontsumoaren inguruko informazioa eta hausnarketa helduarazi nahi diegu ekimen honen bitartez».

Askotariko ekimenak
Urtarrilaren 2an eman zitzaizen hasiera Gazte Txokoko ekitaldiel eta hauek hilaren 31ra arte luza-

Elkarlana Hernaniko Gazte Txokoa, Udala eta Askagintza kolektiboaren elkarlana izan da ekimena

Tailerak Erakusketaz eta pelikulaz gain, drogen inguruko tailer ezberdinak ere antolatu dira

Hernaniko Gazte Txokoak hainbat ekimen antolatu ditu herriko gaztetxoek drogen inguruko informazioa eskeintzearen xedez

GAZTEAK ETA DROGAK, GAUR EGUNEKO BIKOTE



Hernaniko gaztetxoaren artean oso harrera ona izan orren du egunotan drogen inguruan burutzen ari diren ekimenak. A.Galán

tuko dira. Hala, gaur “Drogak larrogorrian” mostra ikusgai izango da Gazte Txokoa. Bihar “Historias del Kronen” pelikula izango dute ikusgai eta astean zehar Graffiti tallerrean edo drogak eta sexua uztartzen dituen ikastaroen parte hartzeko aukera izango dute Hernaniko gaztetxoek.

Askotariko ekimenak antolatu dituzte, bakoitzak beretzat egokiena dena aukeratzeko aukera izan dezan. Antolatzaileen hitzetan, «tailerretan droga ezberdinen inguruko informazioa jasoko dute, liburuak irakurtzeko beta izango dute eta baita euren zalantzak argitzearena ere. Maiz, oso informazio ezkorra jasotzen baitute gazteek drogen kontsumoaren inguruan».



Gazte Txokoko, Askagintzeko eta Udaleko ordezkariak ekimena aurkezten. A.Galán